

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. GIPUZKOAKO ATALA

EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK

Aurreko urtean Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gipuzkoako Atalean euskararen erabilpen formala eta informalarri buruzko analisisia eta diagnostikoari jarraikiz, euskalgintza praktika ezberdinen berri eman dugu aurtengo Euskara egunean ospatutako ekitaldian.

Alde batetik, gure atalean euskararen maila eta erabilerari buruzko galdetegia prestatu dugu eta emaitzak partekatu ditugu eta Posterrak argitaratu ere.

Horrekin batera, UPV/EHUK dituen euskarazko baliabideak ezagutzera eman ditugu. Horien bitartez euskararen ahozko zein idatzizko aktibazioan bi *Arigune* sortu ditugu eta ikasle, irakasle eta AZP ko langileei EUSKARALDIAN parte hartzera animatuz.

Halaber, hizkuntzaren erabilpenean aldaketak ezartzeko estrategiak landu ditugu. Horien artean, gailu digitaletan (mugikorretan eta ordenagailu pertsonaletan) euskara hizkuntza lehenesteko konfigurazio aukerak sustatuz eta euskara hizkuntza lehenetsita dutenen artean zozketa eta sari banaketa egon da.

Beste aldetik, BIKAIN Ziurtagiria lortzeko eskaera irailean egin genuen eta abenduan izan dugu BIKAIN Ziurtagiriaren ebazpena; Zilarrezkoa lortu dugularik.

Bikain ziurtagiria lortzeko prozesuan ikastegiko lankideen inplikazioa oso garrantzitsua izan da: Ziurtagiria eskuratu ahal izateko gure atalak ebaluazioa jaso eta gainditu du. Ebaluatzaileek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa aztertu dituztelarik.

Lanketa honetan, lehenik, autobaluzazio txostena egin genuen eta BIKAIN batzordearen artean berrikusi. Hala nola, euskararen presentzia hobetzeko zenbait ekintza detektatu genituen, besteak beste, gure bezeroak guri euskaraz zuzendu daitezkeela adierazten duten seinaleak jartzea, adibidez txoritxoak, lehenengo hitza euskaraz egitea, elebitan ez dauden kartel eta seinaleak detektatu eta elebitan jartzea, euskaren *Ariguneak* sortzea, etab. Lan guzti honen emaitza eta euskararekin dugun konpromisoaren ondorioa izan da azkenik BIKAIN ziurtagiria lortzea. Laburbilduz, orain arte ondo egindakoaren aitortza eta etorkizunean hobetzeko pizgarria.

Leire Urcola

Praktikak, Enpresa Harremanen eta Euskara Arloko Dekanordea

2022ko abenduran 15a